

**2021EKO MAIATZAREN 6AN GOBERNU BATZARRAK EGINDAKO OHIKO  
BILERAREN AKTA**

**ACTA DE LA SESION CELEBRADA POR LA JUNTA DE GOBIERNO LOCAL  
EL 6 DE MAYO DE 2021**

<p><b>MODUA:</b> Presentzialki <b>TOKIA:</b> Batzar aretoa <b>EGUNA:</b> Seia <b>HILABETEA:</b> Maiatza. <b>URTEA:</b> Bi mila eta hogeita bat. <b>HASIERAKO ORDUA:</b> Arratsaldeko seiak eta erdi <b>BATZARRALDIAREN IZAERA:</b> Ohikoa <b>DEIALDIA:</b> Lehena <b>OSATZEN DUTEN PARTAIDEEN KOPURUA:</b> Bost (5)</p> <p><b>MAHAIBURUA/PRESIDENTE:</b> Leire Artola Ugalde (EAJ-PNV)</p> <p><b>BILDUAK/REUNIDOS:</b> Adur Ugartemendia Leunda (EAJ-PNV) Malu Valles Fernandez (EAJ-PNV) Nerea Manzisidor Mendizabal (Beasaingo EH Bildu) Eva Alvarez Atanes (Socialistas Vascos-Euskal Sozialistak)</p> <p><b>IDAZKARIA/SECRETARIA:</b> ITZIAR AROZTEGUI APAOLAZA</p>	<p><b>MEDIO:</b> Presencial <b>LUGAR:</b> Salon de Plenos <b>DIA:</b> Seis <b>MES:</b> Mayo <b>AÑO:</b> Dos mil veintiuno <b>HORA DE COMIENZO:</b> Dieciocho horas y treinta minutos. <b>CARACTER DE LA SESION:</b> Ordinaria. <b>CONVOCATORIA:</b> Primera <b>NUMERO DE MIEMBROS QUE LA COMPONEN:</b> Seis (5)</p>
<p><b>1.- AURREKO AKTA.</b> Aurreko aktaren onespena. 2021-03-25.</p> <p>Aho batez onartu da.</p>	<p><b>1.- ACTA ANTERIOR.</b> Aprobación del acta de 25-03-2021.</p> <p>Se ha aprobado por unanimidad.</p>
<p><b>2.- HERRITARRAK BATZORDEKO PROPOSAMENA:</b></p> <p><u>Baldintza pleguak eta deialdi publikoa egitea ondorengo kontratatzeke: Euskara hizkuntza errefortzu zerbitzua eta kirol elkarten esparruan euskararen erabileraren sustapen zerbitzua. 2021ESEP0002</u></p> <p>Ezagutzera eman da Herritarren proposamena, aipatutako zerbitzua kontratatzeke baldintza pleguak onartzea eta kontratazioa deialdi publiko irekiaren bidez egitea, ondorengo xehetasunekin:</p>	<p><b>2.- PROPUESTA DE LA COMISIÓN DE CIUDADANIA:</b></p> <p><u>Pliegos de condiciones y convocatoria pública para contratar el servicio de refuerzo lingüístico del euskara y del fomento del uso del euskera en el ámbito de las asociaciones deportivas.</u></p> <p>Se ha dado a conocer la propuesta de Ciudadanía, la aprobación de los pliegos de condiciones para la contratación del citado servicio y la contratación mediante convocatoria pública abierta, con el siguiente detalle:</p>

<p>1.- <i>Prozedura</i>: irekia publizitatearekin. Lizitazio elektronikoa.</p> <p>2.- <i>Izapidetzea</i>: arrunta</p> <p>3.- <i>Loteak</i>: BI</p> <p>4.- <i>Lizitazio prezioa/ urteko</i>:</p> <ul style="list-style-type: none"> <li>• A lotea: 69.121,64 €</li> <li>• B Lotea: 9.852,00 €</li> </ul> <p>5.- <i>Egikaritze epea</i>: 2 urte</p> <p>6.- <i>Luzatzeko aukera</i>: 2 urte (1+1)</p> <p>7.- <i>Kaudimen ekonomiko eta finantzarioa</i>: <i>Klasifikazioa</i>:</p> <p>Urteko negozio bolumena kontratuak xede duen esparruan, eskuragarri dauden azken 3 ekitaldietako negozio bolumen handieneko urteari dagokionez, lizitatuzailearen jardueren sorrera edo hasiera daten arabera eta eskaintzen aurkezpen daten arabera, 103.682,46 € A loterako eta 14.778,02 € B loterako euro izango dira gutxienez. Zenbateko hori 87.3.a artikulua 2. paragrafoan adierazitako eran egiaztatuko da.</p> <p>8.- <i>Kaudimen teknikoa</i>:</p> <p>a) Gehienez azken hiru urteetan egindako zerbitzu edo lan nagusiak, zehazki kontratuaren xede direnen antzekoak. Zehaztu behar dira lan horien zenbatekoa, data eta hartzailea (publikoa edo pribatua).</p> <p>Kontratazio organoak emandako zerbitzuei dagozkion egiaztagirak eska ditzake SPKL2017ren 90. artikulua dioena jarraituz.</p> <p>Egindako zerbitzu edo lan nagusiak, kontratuaren xede direnen antzekoak diren ala ez jakin ahal izateko, plegu honetako 2. klausulan adierazitako CPV kodigoa da kontuan izan beharrekoa. Lizitatuzaileak egindako zerbitzua adierazitako CPV kodigorekin barne hartuko da hau da: 800000-4: hezkuntza- eta prestakuntza-zerbitzuak eta 92620000-3: kirolekin lotutako zerbitzuak.</p> <p>b) Zerbitzuak emateko ardura duten langileek honako titulazio hau izan beharko dute:</p>	<p>1.- <i>Procedimiento</i>: abierto don publicidad. Licitación electrónica.</p> <p>2.- <i>Tramitación</i>: ordinaria</p> <p>3.- <i>Lotes</i>: Dos</p> <p>4.- <i>Precio de licitación/año</i>:</p> <ul style="list-style-type: none"> <li>• Lote A: 69.121,64 €</li> <li>• Lote B: 9.852,00 €</li> </ul> <p>5.- <i>Plazo de ejecución</i>: 2 años</p> <p>6.- <i>Prorrogas</i>: dos años (1+1)</p> <p>7.- <i>Solvencia económica y financiera</i>: <i>Clasificación</i>:</p> <p>Volumen anual de negocios, en el ámbito al que se refiera el contrato, referido al mejor ejercicio dentro de los tres últimos disponibles en función de las fechas de constitución o de inicio de actividades del empresario y de presentación de las ofertas por importe igual o superior a 103.682,46 € para el Lote A y 14.778,02 € para el Lote B acreditada de la manera indicada en el artículo 87.3.a.párrafo 2º.</p> <p>8.- <i>Solvencia técnica</i>:</p> <p>a) Una relación de los principales servicios o trabajos realizados de igual o similar naturaleza que los que constituyen el objeto del contrato en el curso de, como máximo los tres últimos años, en la que se indique el importe, la fecha y el destinatario, público o privado de los mismos.</p> <p>El órgano de contratación podrá requerir que se acrediten los servicios prestados mediante presentación de certificados expedidos de la manera señalada en el art. 90 de la LCSP2017.</p> <p>Para determinar si un servicio es de igual o similar naturaleza al que constituye el objeto del contrato, se deberá acudir al código CPV indicado en el apartado 2 de este cuadro de características, debiendo el servicio prestado por el licitador ser comprensivo de los códigos CPV: 80000000-4: Servicios educativos y de formación y 92620000-3: Servicios relacionados con los deportes.</p> <p>b) El personal encargado de prestar los servicios deberá contar con la <u>titulación</u> siguiente:</p>
--	---

<p>A LOTE A: Hezkuntzako edo Gizarte Laneko gradu-titulua, C1 euskara-mailakoa, eta adingabeekin lan egiteko sexu-izaerako delituen ziurtagiria.</p> <p>B LOTE A: kirol Irakasleen Titulazioa edo TAFYD, kirol-entranadorearen titulua, C1 euskara-mailakoa, eta adingabeekin lan egiteko sexu-izaerako delituen ziurtagiria.</p> <p>c) Kontratistak, zerbitzu bakoitzeko, gutxienez pertsona bat izendatu beharko du koordinatzaile tekniko edo arduradun gisa, Udalarekin eta klubekin aritzeko.</p> <p>Kontratista enpresa berria denean (hau da, bost urte baino gutxiagokoa), aurreko b) eta c) letran aipatzen diren bitarteko baten edo batzuen bidez egiaztatuko da kaudimen teknikoa, baina ez da inola ere aplikagarria izango artikuluko horren a) letran zerbitzu kopuru jakin bat egin izanari buruz ezarrita dagoena.</p> <p>9.- <i>Aurkezteko epea, lekua eta ordua: 15 egun kontratazio plataforman argitaratzen den hurrengo egunetik zenbatuta.</i></p> <p>10.- <i>Adjudikazio irizpideak:</i></p> <p><u>1. irizpidea, formula automatikoekin ebaluaezinak: 50 puntu.</u></p> <p><u>Memoria: (50 puntu)</u></p> <p>Atal honetan, honako hauek bilduko dituen memoria bat aurkeztuko da:</p> <p>1.- Zerbitzuak emateko jarraitu beharreko metodologia: 15 puntu.</p> <p>2.- Egin nahi den programa, hartzaileen adinak kontuan hartuta: 15 puntu.</p> <p>3.- Zerbitzuak antolatzeko modua: 10 puntu.</p> <p>4.- On-line zerbitzuak emateko modua: 10 puntu.</p> <p>Adierazitako atal bakoitzean egindako planteamenduaren egokitasuna eta koherentzia baloratuko dira.</p>	<p>LOTE A: titulación de grado en Educación o Trabajo Social, de nivel C1 de euskera y Certificado de Delitos de Naturaleza Sexual para trabajar con menores.</p> <p>LOTE B: titulación de Magisterio deportivo o TAFYD, título de entrenador deportivo, de nivel C1 de euskera y Certificado de Delitos de Naturaleza Sexual para trabajar con menores.</p> <p>c) La contratista deberá designar por cada servicio, al menos una persona como <u>coordinadora</u> técnica o responsable para con el Ayuntamiento y los clubes..</p> <p>Cuando el contratista sea una empresa de nueva creación, entendiéndose por tal aquella que tenga una antigüedad inferior a cinco años, su solvencia técnica se acreditará por uno o varios de los medios a que se refieren la letra b) y c) sin que en ningún caso sea aplicable lo establecido en la letra a), relativo a la ejecución de un número determinado de servicios.</p> <p>9.- <i>Plazo, lugar y hora de presentación: 15 días contados desde el día siguiente al de la publicación del anuncio de licitación del contrato en el perfil del contratante.</i></p> <p>10.- <i>Criterios de adjudicación:</i></p> <p>- <u>Criterio 1 no evaluables mediante fórmulas automáticas: 50 puntos</u></p> <p><u>Memoria: (50 puntos)</u></p> <p>En este apartado se presentará una memoria comprensiva de:</p> <p>1.-Metodología a seguir para la prestación de los servicios: 15 puntos.</p> <p>2.- Programa que se propone ejecutar, teniendo en cuenta las diferentes edades de los destinatarios: 15 puntos.</p> <p>3.- Modo de organizar los servicios: 10 puntos.</p> <p>4.- Modo de prestar los servicios on-line: 10 puntos.</p>
---	--

<p>2017 SPKLko 146,3 artikulua araberako hurrengo faseko pasatzeko gutxienez %50eko puntuazioa lortu behar da.</p> <p><u>2. irizpidea: formula automatikoen bidez ebaluatzen direnak: 50 puntu</u></p> <p><u>Proposamen ekonomikoa: 50 puntu.</u></p> <p>Lote bakoitzeko puntuazio handiena prezio merkeenak jasoko du. Gainerako eskaintzak formula honen arabera puntuatuko dira: prezio merkeenaren eta lizitatuaren eskaintzaren arteko zatiduraren emaitza bider irizpideari dagokion puntuazio osoa.</p> <p><math>PI = Em/EI \times 50</math></p> <p>Non:  PI: Puntuazio lizitatuarena  Em: Eskaintza merkeena  EI: Eskaintza lizitatuaren</p>	<p>Se valorará la idoneidad y coherencia del planteamiento efectuado en cada uno de los apartados señalados.</p> <p>De conformidad con lo dispuesto en el art. 146,3 de la LCSP 2017, el umbral mínimo para pasar a la siguiente fase, será del 50%</p> <p>- <u>Criterio 2 evaluables mediante fórmulas automáticas: 50 puntos</u></p> <p><u>Proposición económica: 50puntos.</u></p> <p>Por cada lote, se otorgará la máxima puntuación al precio más económico y la puntuación del resto se desprende del resultado de la fórmula de multiplicar el resultado del cociente entre el precio más bajo y la oferta del licitador que se valora por el número total de puntos aplicables:</p> <p><math>PI = Ob/OI \times 50</math></p> <p>Dónde:  PI: Puntuación de la licitadora  Ob: Oferta más baja  OI: Oferta de la licitadora</p>
<p>Hitz egiteko txanda eman ondoren, Nerea Manzidor Mendiazabal andreak esan du behin eta berriz adierazi dutela beraien ustetan euskara errefortzu zerbitzua inklusiboa izan behar lukeela, eskaera edozein haurtzako egiteko moduan. Subrogazioa derrigorrezkoa ez izateari buruz esan du langileen jarraipena ez dela bermatzen eta horrelako azpikontratazioak ondorio horiek dituela.</p>	<p>En el turno de intervenciones Nerea Manzidor Mendiazabal insiste en que consideran que el servicio de refuerzo al euskera debería ser inclusivo, de modo que se pueda hacer la solicitud para cualquier niño o niña. En cuanto a la no obligatoriedad de la subrogación, dice que no se garantiza la continuidad del personal y que este tipo de subcontratación tiene esas consecuencias.</p>
<p>Bozketaren eginda, ondorengo emaitza lortu da:</p> <p>Aldeko botoak: 4 (EAJ-PNV, Sozialistas Vasco-Euskal Sozialistak)  Aurkako botoak: 0  Abstentzioak: 1 (Beasaingo EH Bildu)</p> <p>Horren ondorioz, gehiengo osoarekin onartu da proposamena.</p>	<p>Tras realizar la votación se ha obtenido el siguiente resultado:</p> <p>Votos a favor: 4 (EAJ-PNV, Sozialistas Vasco-Euskal Sozialistak)  Votos en contra: 0  Abstenciones: 1 (Beasaingo EH Bildu)</p> <p>En consecuencia se ha aprobado la propuesta con la mayoría absoluta.</p>
<p><b><u>3.- LURRALDE BATZORDEKO PROPOSAMENAK:</u></b></p> <ul style="list-style-type: none"> <li>• <u>Obra ziurtagiria:</u> Igartza Oleta kalean Oria ibaiaren gainean dagoen oinezkoentzako espaloia aldatzeko obraren lehenengo ziurtagiria. 2018PROB0006</li> </ul>	<p><b><u>3.- PROPUESTAS DE LA COMISIÓN DE TERRITORIO:</u></b></p> <ul style="list-style-type: none"> <li>• <u>Certificación de obras:</u> certificación primera de las obras de modificación de la acera peatonal existente sobre el río Oria en Igartza Oleta.</li> </ul>

<p>Aho batez onartu da, <b>“Igartza Oleta kalean Oria ibaiaren gainean dagoen oinezkoentzako espaloia aldatzeko”</b> obrei buruzko obren 1. ziurtagiria, <b>50.392,94 €</b>koa (BEZ barne).</p> <ul style="list-style-type: none"> <li>• <u>Kontratua aldatzea.</u> Dolarea parketa birmoldatzeko obrei buruzkoa. 2019PROB0006</li> </ul> <p>Lurralde batzordeak proposatuta, aho batez ondorengo erabakia hartu da:</p>	<p>Se aprueba por unanimidad la 1ª certificación de las obras de <b>"modificación acera peatonal sobre el río Oria en la calle Igartza Oleta"</b> por importe de <b>50.392,94 €</b> (IVA incluido).</p> <ul style="list-style-type: none"> <li>• <u>Modificación de contrato</u> de las obras de remodelación del parque Dolarea.</li> </ul> <p>Se ha adoptado el siguiente acuerdo por unanimidad a propuesta de la comisión de Territorio:</p>
<p style="text-align: center;"><b>“AURREKARIAK</b></p> <p><b>1.-</b> 2021-02-22. Beasaingo Udalaren eta CONSTRUCCIONES MOYUA, S.L.ren arteko administrazio-kontratua, <b>Dolarea parkea eraberritzeko obrak</b> gauzatzeko, 896.970,41 € BEZ barne, prezioan eta gauzatzeko epea 5 hilabetekoa.</p> <p><b>2.-</b> 2021-03-12. CONSTRUCCIONES MOYUA, S.L.ren idazkia, kontratua aldatzeko eskatzen duena; izan ere, proiektuaren planoetan Foru kaleko hornidura-zerbitzua berritzea eta etxebizitzetako hartuneak berritzea jasotzen bada ere, jarduketa horiek ez daude jasota aurrekontuko partidetan, eta, beraz, ez dute inolako preziorik.</p> <p><b>3.-</b> 2021-04-12. Proiektuaren idazleen txostena; horiek, aldi berean, obra-zuzendariak dira, eta honako hauen berri ematen dute:</p> <ol style="list-style-type: none"> <li>1. Jardun horiek obraren aurrekontuan ez agertzearen arrazoia.</li> <li>2. Horiei ekiteko beharra.</li> <li>3. Horien zenbatekoa: 21.710,12 € BEZ barne, (% 1,98ko igoera hasierako aurrekontuarekiko).</li> <li>4. Kontratua gauzatzeko epea: aurreikusitakoa baino 5 egun gehiago.</li> </ol> <p><b>4.-</b> 2021-04-19. Kontratuaren udal-arduradunaren txostena, hornidurari eta saneamenduari dagozkien partida ekonomikoak proiektuan sartzeko kontratua aldatzea proposatzen duena, honako arrazoi hauengatik:</p> <ul style="list-style-type: none"> <li>• Kontratuaren aldaketan egindako aldaketak behar-beharrezkoak dira obra-eremuko</li> </ul>	<p style="text-align: center;"><b>“ANTECEDENTES</b></p> <p><b>1.-</b> 22-02-2021. Contrato administrativo entre el Ayuntamiento de Beasain y CONSTRUCCIONES MOYUA, S.L. para ejecutar las obras para la <b>reforma del parque de Dolarea</b>, por importe de 896.970,41 €, IVA incluido y plazo de ejecución de 5 meses.</p> <p><b>2.-</b> 12-03-2021. Escrito de CONSTRUCCIONES MOYUA, S.L. solicitando la modificación del contrato porque si bien en los planos del Proyecto se plasma la renovación del servicio de abastecimiento de la calle Foru y la renovación de acometidas a las viviendas, dichas actuaciones no se recogen en las partidas del presupuesto, por lo que carecen de precio alguno.</p> <p><b>3.-</b> 12-04-2021. Informe de los redactores del Proyecto, que a su vez son los directores de obra, dando cuenta de:</p> <ol style="list-style-type: none"> <li>1. La razón por la que esas actuaciones no figuran en el presupuesto de la obra.</li> <li>2. Necesidad de acometerlas.</li> <li>3. Importe de las mismas: 21.710,12 € IVA incluido (1,98% respecto del presupuesto inicial).</li> <li>4. Plazo para su ejecución: 5 días más de lo previsto.</li> </ol> <p><b>4.-</b> 19-04-2021. Informe del responsable municipal del contrato proponiendo modificar el contrato para incorporar al proyecto las partidas económicas correspondientes a abastecimiento y saneamiento, por las siguientes razones:</p> <ul style="list-style-type: none"> <li>• Las variaciones introducidas en la modificación del contrato son estrictamente</li> </ul>

hornidura-, euri-saneamenduko eta ur beltzeko sareak konpontzeko.

- Ez dira funtsezko aldaketak: ez da kontratista ez den beste sailkapenik behar, aurreikusi izan balira ez ziratekeen beste lizitatzailerik batzuk erakarriko, ez da kontratuaren oreka ekonomikoa aldatuko eta ez da haren esparrua nabarmen handituko.

**5.-** 2021-04-21. Idazkaritzako aldeko txostena kontratua aldatzeko.

#### OINARRI JURIDIKOAK

Aplikatzekoak diren manuak SPKLn jasota daude:

- 203. artikulua: kontratua aldatzeko ahalmena. Kasu honetan gertatzen den bezala aurreikusita ez badago, egingarria izango da 205. Artikuluan adierazitako baldintzak betetzen badira.
- 205. artikulua: kontratuan aurreikusi gabeko aldaketa honako kasu hauetan bakarrik egin ahal izango da:
  - Artikulu honetako 2. ataleko kasuren batean justifikatuta dagoenean.
  - Behar-beharrezkoak diren aldaketak sartzen dituztenean. Kasu honetan, c) atalean adierazitako kasua gertatzen da (funtsezkoa ez den aldaketa), aurrekarietan jada azaldu dena.
  - Aldaketa kontratuaren hasierako prezioaren %15a baino gehiago ez denean, BEZ kanpo.
- 203. art.: kontratuaren aldaketak administrazio-agiri batean formalizatu behar dira, eta 63. Artikuluan adierazitako moduan publikatu (kontratatzaileraren profila).
- 191. artikulua: kontratua formalizatu aurretik, entzunaldia eman behar zaio kontratistari.

Horren ondorioz, Lurralde batzordeak, Gobernu Batzordeari egin dio ondorengo

#### PROPOSAMENA

indispensables para resolver las redes de abastecimiento, saneamiento pluvial y fecal del ámbito de la obra.

- No se trata de modificaciones sustanciales: no se precisa clasificación distinta de la contratista, si se hubieran previsto no habrían atraído a otras licitadoras, no se altera el equilibrio económico del contrato ni se amplía de forma importante su ámbito.

**5.-** 21-04-2021. Informe de Secretaria favorable a la modificación del contrato.

#### FUNDAMENTOS JURÍDICOS

Los preceptos aplicables vienen recogidos en la LCSP:

- ▣ Art. 203: potestad de modificación del contrato. En el caso de no estar previsto como ocurre en este supuesto, es factible cuando se cumplan las condiciones del art. 205.
- ▣ Art. 205: la modificación no prevista del contrato sólo se podrá realizar:
  - Cuando encuentre justificación en algún supuesto del apartado 2 de este art.
  - Cuando introduzca variaciones estrictamente indispensables. En este caso se da el supuesto señalado en el apartado c) (modificación no sustancial), ya explicada en los antecedentes.
  - Cuando la modificación no sea superior al 15% del precio inicial del contrato, IVA excluido.
- Art. 203: las modificaciones del contrato deben de formalizarse en documento administrativo y publicarse de acuerdo con lo establecido en el art. 63 (perfil del contratante).
- Art. 191: antes de formalizar el contrato, deberá darse audiencia a la contratista.

En consecuencia, la Comisión de Territorio propone a la Junta de Gobierno Local lo siguiente:

<p><b>Lehenengoa.</b> Kontratua alda daiteke, egin nahi den aldaketak betetzen duelako 205. artikuluan adierazten dena. Aldaketaren prezioa eta egikaritze epea:</p> <ul style="list-style-type: none"> <li><input type="checkbox"/> Prezioa: 21.710,12 €, BEZ barne (kontratuaren prezioarekiko %2,42).</li> <li><input type="checkbox"/> Epea: kontratuan ezarrita dagoena baino 5 egun gehiago.</li> </ul> <p><b>Bigarrena.</b> Erabaki honen berri CONSTRUCCIONES MOYUA, S.L. kontratistari ematea hamar laneguneko epean alegazioak aurkezteko aukera emateko. Epe horretan ez bada ezer argudiatzen ulertuko da hartutako erabakiaren ados dagoela eta kontratu-aldaketa dokumentua sinatu beharko da.</p> <p><b>Hirugarrena.</b> Kontratua formalizatu ondoren, kontratazio-plataforman argitaratuko da.”</p>	<p><b>Primera.</b> Modificar el contrato porque aún sin previsión en el pliego, la modificación que se prevé realizar cumple con lo señalado en el art. 205. Precio y plazo de ejecución de la modificación:</p> <ul style="list-style-type: none"> <li>• Precio: 21.710,12 € IVA incluido (incremento 2,42% respecto al precio del contrato).</li> <li>• Plazo: 5 días más de lo fijado en el contrato.</li> </ul> <p><b>Segundo.</b> Dar audiencia a la contratista, CONSTRUCCIONES MOYUA, S.L. otorgándole un plazo de alegaciones de diez días. Si en el plazo otorgado no se objetara nada, se entenderá que está conforme con el acuerdo adoptado y en ese caso se procederá a la firma del documento de modificación del contrato.</p> <p><b>Tercero.</b> Una vez formalizado el contrato se publicará en la plataforma de contratación. “</p>
<ul style="list-style-type: none"> <li>• <u>Lursaila besterentzea</u>, Errekarte, 32 I areako 32.1. UEKo R.1.3. lursaila: Baldintza Plegua: lizitazioa hutsik uztea eta deialdi berria egitea. 2021IDBO0013</li> </ul> <p>Lurralde batzordearen proposamenaren berri eman da, hau da,</p> <p><u>Lehenik.</u> Gai berdinari buruz 2021-02-15ean Gobernu Batzordeak onartutako lizitazioa hutsik uztea lizitatzailerik ez aurkezteagatik.</p> <p><u>Bigarren.</u> Lursail hori besterentzeko beste lizitazio bat egitea, jarraian aipatzen diren xehetasunekin:</p> <p>Gehienez ere 26 babes ofizialeko etxebizitzak egiteko den Errekarte, 32 I areako 32.1. UEKo R.1.3. lursaila besterentzeko baldintza pleguak onartzeari buruzkoa eta deialdi publiko irekia egiteari buruzkoa. Xehetasunak hauek dira:</p> <p>1.- <i>Prozedura:</i> irekia publizitatearekin. Lizitazio elektronikoa. 2.- <i>Izapidetzea:</i> arrunta</p>	<ul style="list-style-type: none"> <li>• <u>Enajenación de la parcela R.1.3.</u> de la UE32.1 del área Errekarte, 32 I.: Pliego de condiciones: licitación desierta y nueva convocatoria.</li> </ul> <p>Se ha informado la propuesta de la Comisión de Territorio, es decir,</p> <p><u>Primero.</u> Declarar desierta la licitación aprobada por la Junta de Gobierno de fecha 15.02.2021, sobre el mismo objeto, por falta de licitadores.</p> <p><u>Segundo.</u> Efectuar una nueva licitación para la enajenación de dicha parcela, con el detalle que se indica a continuación:</p> <p>Construcción de un máximo de 26 viviendas de protección oficial en Errekarte, área 32 I 32.1. UEKo R.1.3. sobre aprobación de los pliegos de condiciones para la enajenación de la parcela y convocatoria pública abierta, con el siguiente detalle:</p> <p>1.- <i>Procedimiento:</i> abierto con publicidad. Licitación electrónica. 2.- <i>Tramitación:</i> ordinaria 3.- <i>Precio de licitación:</i> 732.750,22 €, sin IVA</p>

<p>3.- <i>Lizitazio prezioa: 732.750,22 €, BEZ gabe</i>  4.- <i>Egikaritze epea: esleitzen denetik hilabete</i>  5.- <i>Kaudimen ekonomiko eta finantzarioa: Klasifikazioa:</i></p> <p>Urteko negozio bolumena kontratuak xede duen esparruan, eskuragarri dauden azken 3 ekitaldietako negozio bolumen handieneko urteari dagokionez, lizitatzaillearen jardueren sorrera edo hasiera daten arabera eta eskaintzen aurkezpen daten arabera, 1.099.125,32€ izango da gutxienez. Zenbateko hori SPKLren 87.3.a artikulua 2. paragrafoan adierazitako eran egiaztatuko da.</p> <p>6.- <i>Kaudimen teknikoa:</i></p> <p>Enpresa lizitatzailleak edo bere enpresataldeak azken 5 urte naturalen barruan babes-araubideren bati atxikitako etxebizitzak sustatu izana.</p> <p>Egindako sustapenak zerrendatzen dituen erantzukizunpeko adierazpen bat aurkeztuta egiaztatuko da, baina kontratazio-mahaiak agiri bidez egiaztatzeko eskatu ahal izango dio lizitatzaileri, erantzukizunpeko adierazpenean aipatutako sustapen bakoitzaren entitatea modu frogagarrian egiaztatzen duten ziurtagirien bidez.</p> <p>Lizitatzailleak etxebizitza mota hori sustatu duela ulertuko da etxebizitza horiek Eusko Jaurlaritzaren kalifikazioa lortu dutenean.</p> <p>7.- <i>Aurkezteko epea, lekua eta ordua: 20 lanegun kontratazio plataforman argitaratzen den hurrengo egunetik zenbatuta.</i></p> <p>8.- <i>Adjudikazio irizpideak:</i></p> <p><u>Balorazio automatikoa:</u>  - Proposamen ekonomikoa (2. eranskina): 0 tik 50 puntura</p> <p><u>Balio-iritzien bidez ebaluatu daitezkeen irizpideak</u></p> <p>- Ingurumen Memoria: 0tik 5 puntura.  - Proposamen arkitektonikoa: de 0tik 45 puntura.</p> <p>9.- <i>Proposamenak irekitzeko lekua, eguna eta ordua:</i>  plika irekitzea kontratistatzailearen profilean</p>	<p>4.- <i>Plazo de ejecución: un mes desde la adjudicación.</i>  5.- <i>Solvencia económica y financiera: Clasificación:</i></p> <p>Volumen anual de negocios, en el ámbito al que se refiera el contrato, referido al mejor ejercicio dentro de los tres últimos disponibles en función de las fechas de constitución o de inicio de actividades del empresario y de presentación de las ofertas por importe igual o superior a 1.099.125,32 € acreditada de la manera indicada en el artículo 87.3.a.párrafo 2º LCSP</p> <p>6.- <i>Solvencia técnica:</i></p> <p>Haber promovido la empresa licitadora o el grupo empresarial al que pertenezca, dentro de los 5 últimos años naturales, viviendas sometidas a algún régimen de protección.</p> <p>Se acreditará presentando una declaración responsable que relacione las promociones realizadas, si bien la Mesa de Contratación podrá requerir a la licitadora que lo acredite documentalmente con certificaciones que acrediten fehacientemente la entidad de cada una de las promociones mencionadas en la declaración responsable.</p> <p>Se entenderá que la licitadora ha promovido ese tipo de viviendas cuando las mismas hayan obtenido la calificación del Gobierno Vasco.</p> <p>7.- <i>Plazo , lugar y hora para la presentación de proposiciones: 20 días hábiles contados desde el día siguiente al de la publicación del anuncio de licitación del contrato en el perfil del contratante.</i></p> <p>8.- <i>Criterios de adjudicación:</i></p> <p><u>Valoración automática:</u>  - Oferta económica (anexo 2): de 0 a 50 puntos.</p> <p><u>Criterios evaluables mediante juicios de valor:</u></p> <p>- Memoria Ambiental: de 0 a 5 puntos.  - Propuesta arquitectónica: de 0 a 45 puntos.</p> <p>9.- <i>Lugar, día y hora para la presentación de proposiciones:</i> la apertura de plicas se efectuará en</p>
---	--



<p>argitaratzen den tokian, egunean eta orduan egingo da.</p> <p>10.- <i>Aurkeztu beharreko agiriak:</i> Lizitatzailleek administrazio-baldintzen Pleguan adierazitako agiriak aurkeztu beharko dituzte.”</p>	<p>el lugar, día y hora que figure en el perfil del contratante.</p> <p>10.- <i>Documentación a presentar:</i> los licitadores deberán presentar la documentación que figura en pliego de condiciones administrativas. “</p>
<p>Hitz egiteko txanda eman ondoren, iritzi hauek azaldu dira.</p> <p>Nerea Manzidor Mendizabal andreak (Beasaingo EH Bildu) esan du ados ez dagoela proposamenarekin, lizitazio prezioa jaitea promotoreari erantzuna emateko dela, herriaren onurarako izan ordez.”</p> <p>Bozketa eginda, ondorengo emaitza lortu da:</p> <p>Aldeko botoak 4 (EAJ-PNV, Sozialistas Vascos-Euskal Sozialistak) Aurkako botoak: 1 (Beasaingo EH Bildu) Abstentzioak: 0</p> <p>Horren ondorioz, gehiengo osoarekin onartu da proposamena.</p>	<p>En el turno de intervenciones los asistentes han formulado las siguientes opiniones.</p> <p>Nerea Manzidor Mendizabal (Beasaingo EH Bildu) ha dicho que no está de acuerdo con la propuesta, ya que la reducción del precio de licitación es para dar respuesta a la promotora, en lugar de tener en cuenta el interés general.</p> <p>Tras realizar la votación se ha obtenido el siguiente resultado: Votos a favor: 4 (EAJ-PNV, Sozialistas Vascos-Euskal Sozialistak) Votos en contra: 1 (Beasaingo EH Bildu) Abstenciones:0</p> <p>En consecuencia se ha aprobado la propuesta con la mayoría absoluta.</p>
<p><b><u>3.- ESKAERA ETA GALDERAK</u></b></p> <p>Eskaera eta galderen atalean ez da inolakorik aurkeztu.</p> <p>Eta tratatzeko besterik ezean, bilera arratsaldeko zazpiak hamar gutxiagotan amaitu da eta nik, idazkari naizen, akta hau idatzi eta sinatu dut.</p>	<p><b><u>3.- RUEGOS Y PREGUNTAS</u></b></p> <p>En el apartado de ruegos y preguntas no se ha formulado ninguna.</p> <p>Y sin más asuntos que tratar, la sesión ha finalizado a las dieciocho horas y cincuenta minutos, y yo como Secretaria doy fe extendiéndose la presente acta</p>

